

BALOREZKO PROPOSAMENA:

Gure ispilu adimendunak hainbat behar eta arazo konpontzen ditu. Lehenik eta behin, denbora aurrezten du, erabiltzaileek ez dutelako aldatu beharrik arropa nola geratzen zaien ikusteko. Gainera, konbinazio egokiak eskaintzen ditu, outfit egokiak gomendatuz eta erabiltzaileei konbinazio onenak aurkitzen lagunduz. Era berean, arropa probatzean ilea ez nahastea bermatzen du. Horrez gain, gutxiago erosten eta arropa hobeto aprobetxatzen laguntzen du, erabiltzaileek konbinazio berriak aurkitzen dituztelako. Azkenik, eguneroko estresa murrizten du, janzteko prozesua erraztuz.

Zer bereizten gaitu eta zergatik egongo da bezeroa guri ordaintzeko prest? Dibertigarria eta eroso da: Ispilua erabiltzea esperientzia dibertigarria eta eroso da. Denbora aurrezteko: Erabiltzaileek denbora asko aurrezten dute arropa probatzean. Ispilu espeziala: Gure ispilua ez ohikoa da eta oraindik ez dago merkatura aterata. Gomendio pertsonalizatuak: Ispiluak gomendio pertsonalizatuak ematen ditu, erabiltzailearen gustura egokituak. Itxura hobetzeko aukera: Erabiltzaileek itxura hobetzeko aukera dute, makillaje eta ile estilo berriak probatuz. Azkar eta erraz aukeratu: Ispiluak arropa azkar eta erraz aukeratzen laguntzen du. Modan jantzi: Erabiltzaileek beti modan janzteko aukera dute, ispiluak azken joerak kontuan hartzen dituelako.

